

EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzen: 2011ko Arrueko azterketen aurretik eta ondoren

Pablo Suberbiola
Soziolinguistika Klusterra
Iñaki Martínez de Luna
UPV-EHU
Mikel Zalbide
HHPK Saila

Sarrera-data: 2013-9-30 / Onartze-data: 2013-10-30

Laburpena. Arrue proiektuak EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzea helburu nagusi duen proiektua da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Soziolinguistika Klusterraren arteko lankidetzaz 2007an sortu zen, eta 2010. urtean Hezkuntza Saileko ISEI-IVEIK egiten duen EAEko hezkuntzaren ebaluazio-sisteman, ikasleen hizkuntza-erabilerrari buruzko datu-bilketa txertatu zen. Horrela, EAEko ikastetxe guztietan eginiko Ebaluazio Diagnostikoaren bitartez LMH4ko eta DBH2ko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerei buruzko datuak bildu ziren. Datu horien analisi-txostena 2012. urtearen amaieran zabaldu genuen, eta artikulu honetan duzue azterketa hura egiteko baliatu genituen ikuspegi eta erreferentzia teorikoen deskribapena. Era berean, lerro hauetara ekarri ditugu 2011ko datuen azterketaren gainean hainbat ikerlarik eta adituk eginiko analisisien eta proposamenen erreferentzia. • **Hitz-gakoak:** *eskola-giroko hizkuntza-erabilera, hizkuntza-gertaera.*

Abstract. The Arrue project mainly seeks to analyse the language used by students in the school environment in the Basque Autonomous Community. It was set up in 2007 as a result of collaboration between the Department of Education, Universities and Research of the Government of the BAC (Basque Autonomous Community) and the Sociolinguistics Cluster, and in 2010 the data gathering on language use among students was incorporated into the education evaluation system in the BAC carried out by the Education Department's ISEI-IVEI (The Basque Institute for Research and Evaluation in Education). So through the Evaluation Diagnosis made in all the schools across the BAC, data were gathered on school language use by students in the 4th grade of Primary Education and the 2nd Grade of Statutory Secondary Education. We published the results of the analysis report on these data at the end of 2012, and in this article you will find a description of the perspectives and theoretical references used to conduct the analysis. We have also included a reference on the analyses and proposals made by several researchers and experts on the analysis of the data for 2011. • **Key words:** *language use in the school environment, language event.*

SARRERA

I

2004az geroztik, abian da EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzea helburu nagusi duen Arrue Proiektua. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Soziolinguistika Klusterraren arteko lankidetzaz sortu zen proiektua eta hala garatu da ikasturtez ikasturte gaur arte¹. 2010. urtean aldaketa garrantzitsua izan zuen proiektuak, Hezkuntza Saileko ISEI-IVEI ikastegiak ere bat egin baitzuen ikerketa gidatzen duen lantaldearekin. Horri esker, posible izan da ISEI-IVEIk egiten duen EAEko hezkuntzaren ebaluazio-sisteman, lehen aldiz, ikasleen hizkuntza-erabilerari buruzko datu-jasoketa txertatzea. Hala, 2011. urtean, Arrue Proiektuaren hizkuntza-erabilera aztertzeko galderak ISEI-IVEIk EAEko ikastetxe guztietan eginiko Ebaluazio Diagnostikoaren proban txertatu ahal izan ziren, eta horri esker LMH4ko eta DBH2ko ikasleen eskolako hizkuntza-erabilerari buruzko datuak lortzeko pausua eman zen.

Datu-jasotze hori EAEko ikastetxe guztietan egin izanak ate berriak zabaldu dizkio ikerlanari: neurri aldetik erabat ohiz kanpoko zabalera eta sendotasun handia duen datu-multzoa lortzea ahalbidetu du, aipatutako bi ikasmailetakoa ia ikasle guztien datuak jaso baitira bide horretatik. Labur esanik, 35.820 ikasleren datuak jaso eta aztertu dira guztira, 18.636 ikasle LMH4n eta 17.184 gazte DBH2n, era honetako ikerketetan erabat ohiz kanpokoak diren kopuruak, bistan da.

Datu horien analisi-txostena 2012. urtearen amaieran zabaldu genuen (Soziolinguistika Klusterra 2012a), eta artikulu honetan duzue azterketa hura egiteko baliatu genituen ikuspegi eta erreferentzia teorikoen deskribapena. Era berean, lerro hauetara ekarri ditugu 2011ko datuen azterketaren gainean hainbat ikerlarik eta adituk eginiko analisisien eta proposamenen erreferentzia. Erreferentzia laburra, nolana ere, laster kaleratuko baita aipatutako datuen gainean ikerlari- eta adituetalde zabal baten analisiak jasotzen dituen argitalpena (Soziolinguistika Klusterra 2014, argitaratze bidean).

HIZKUNTZA-ERABILERA AZTERTZEN, IKUSPEGI SOZIOLOGIKOTIK

I


Ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzeko Arrue Proiektuan erabiltzen dugun ikuspegi teorikoan, hizkuntza-ukipeneko egoeran kokatzen da erabilera hori: ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzetako bat -kasu honetan, euskara- egoera ahulean dago gizartean. Ahuldutako

Hizkuntza baten bizirik irauteko ahalmena, belaunez belauneko transmisio-bermea eta jarraipena batetik, eta hiztun-elkarte horren (bertako hiztun-talde jakinen) erabilera bestetik, gauza bera dira funtsean.

hizkuntza horren bizirik irauteko ahalmena, belaunez belauneko transmisio-bermea eta jarraipena, hartzen dugu erreferentziatzat erabileraren azterketa egiteko. Honako oinarri hau hartzen dugu abiaburu, maila operatiboan: hizkuntza baten bizirik irauteko ahalmena, belaunez belauneko transmisio-bermea eta jarraipena batetik, eta hiztun-elkarte horren (bertako hiztun-talde jakinen) erabilera bestetik, gauza bera dira funtsean. Ikuspegi teoriko honen nondik norakoak duela hamabost bat urte garatu eta argitaratu ziren, *Hizkuntza biziaren euskarriak* izeneko eredu teoriko baten proposamenaz (Martínez de Luna 2001). Arrue ikerketan baliatu ditugun oinarri teorikoen artean hori izan da osagai nagusietako bat, hasiera-hasieratik.

Eredu horretan, hizkuntza-erabileraren gertaeraren, bi hiztunen edo gehiagoren arteko hitzezko interakzio zehatza aztertzeko, ikuspegi soziologiko orokor bat baliatzen dugu. Hiru planotatik, hiru mailatatik begiratzen dio ikuspegi horrek, aldi berean, aztergai dugun fenomenoari: maila indibidualetik (1), mikrosozialetik (2) eta makrosozialetik (3). Ondoko 1. irudiaren bitartez adierazi izan dugu, grafikoki, eredu:

1. irudia



Ikuspegi teoriko horren bitartez, hizkuntza-erabileretan -Arrue Proiektuaren kasuan, eskola-giroan gertatzen diren ikasleen hizkuntza-erabileretan- hiru maila horietako egoerak eta errealtateek nolako eragina duten aztertzeko bidea zabaltzen da². Ikerketaren diseinu metodologikoa egitean, ez da beti erraza suertatzen hiru maila edo plano

horietako errealitatearen berri emango diguten datu enpirikoak biltzea. Hala ere, ikuspegi teoriko lagungarria dela uste dugu halako ikerketa batean, hizkuntza-erabileraren gertaera soziala bere konplexutasun osoan kokatzen laguntzen baitu. *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa* lanean esate baterako (Martínez de Luna et al. 2009), hiru maila horietako bakoitzak ikasleen arteko jolaslekuko erabileraren zenbateko *azalpena* eskaintzen zuten kuantifikatzeko saioa egin genuen, erregresio anizkoitzaren analisia erabiliz.

Eredu teoriko hau sortzeko hausnarketa-prozesuan aparteko garrantzia izan zuen bestalde, hartarako oinarri enpiriko zabala eta anitza eskaini zuen neurrian, Euskal Herriko gazteek hizkuntza kontuan —bereziki euskarari dagokionean— bizi zuten errealitatea aztertzeko hainbat egileren artean egindako azterlan honek: *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* lanak (Hainbat egile 2000). Ikuspegi teorikoaren garapenean ez ezik metodologia mailan ere baliatu izan ditugu lan horretan garaturiko tresnak Arrue Proiektuaren 2004 eta 2011 arteko azteraldietan. Lagungarri gertatu da hori, besteak beste, ikasleen *irudikapenak* neurtzeko eta aztertzeko (Soziolinguistika Klusterra 2012a).

IKASLEEN HIZKUNTZA-ERABILERA AZTERTZEKO JARDUN-GUNEA ETA ROL-HARREMANAK

I

Eskola-giroko hizkuntza-erabileraren azterketarako Arrue Proiektuaren baitan garatuz joan garen tresneria teoriko-metodologikoan baliatu dugun beste oinarri bat Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuan eginiko lana da: bereziki ikasleen mintzajarduna neurtzeko Mikel Zalbidek sorturiko *Gela-argazkia* eta berau eraikitzeko baliatutako ikuspegi eta erreferentzia teorikoak. 2004. urtean sortu zen *Gela-argazkia* (Zalbide 2004) eta geroztik EAEko hainbat ikastetxetako mintzajarduna aztertzeko erabili izan da³. Arrue Proiektuaren tresneria metodologikoan eta *Gela-argazkia* sortzeko erabili ziren oinarri teorikoetan elementu komun ugari dugu⁴. Ikus ditzagun jarraian elementu horietariko batzuk.

Arrue Proiektuaren baitan eginiko analisisetan zein *Gela-argazkiaren* bitartez eginiko neurketetan kuantifikatu egiten dugu ikasleek beren eguneroko bizitzan *jardun-gune* jakinetan dituzten hizkuntza-erabilerak, eta “zein leku” hartzen duen hizkuntza bakoitzak erabilera aldetik esparru horietan. Beste era batera esanik, ikasleentzat esparru horietako bakoitzean *nagusitasun-moldaera* zein den aztertzen da. Bi kontzeptu hauek —*jardun-gune* eta *nagusitasun-moldaera*— J. A. Fishman-en lan teorikoetan oinarrituta garatu eta egokitu zituen, euskal eremurako, M. Zalbidek⁵.

Hizkuntza-erabileraren gertaeraren, bi hiztunen edo gehiagoren arteko hitzezko interakzio zehatza aztertzeko, ikuspegi soziologiko orokor bat baliatzen dugu. Hiru planotatik, hiru mailatik begiratzen dio ikuspegi horrek, aldi berean, aztergai dugun fenomenoari: maila indibidualetik, mikrosozialetik eta makrosozialetik.

**Arrue
Proiektuaren
baitan eginiko
analisietan zein
Gela-argazkiaren
bitartez eginiko
neurketetan
kuantifikatu
egiten dugu
ikasleek beren
eguneroko
bizitzan jardun-
gune jakinetan
dituzten
hizkuntza-
erabilerak, eta
“zein leku”
hartzan duen
hizkuntza
bakoitzak
erabilera aldetik
esparru horietan.**

Alde batetik Fishman-ek 60. eta 70. hamarkadetan ezagun egindako *Domains of Language Behavior* edo hizkuntza-jokaearen *jardun-guneak* ditugu⁶ (Fishman 1966). Arrue Proiektuan aztergai ditugun hizkuntza-erabilera nagusiak *jardun-gune* batean gertatzen dira: eskola esparruan. Esparru horretan ikasleek duten erabilera sorta nabarra ongi ulertu eta aztertu ahal izateko, oso baliagarri zaigu —*Gela-argazkian* egiten den modu berean— ikasleek beren bizitzako beste *jardun-guneetan* dituzten hizkuntza-erabilerak eta bestelako errealitate linguistikoak ere ezagutzea. Arrue Proiektuan egindako azterketetan, eskola eremukoez gainera beste lau *jardun-gunetako* hizkuntza-erabilerak aztertu izan ditugu nagusiki: familia (anai-arrebekin, gurasoekin...), auzoa eta lagunak (herriko edo auzoko lagunak), kultura-kontsumoak (telebista, irratia, musika...) eta aisialdia (eskolaz kanpoko hainbat ekintza). Arrueko azterketetan baliatu izan dugun *jardun-guneen* hautaketa hau *Gela-argazkian* erabiltzen denaren oso antzekoa da⁷, eta azken honen oinarria berriz, bat dator C. Baker-ek 2001ean hezkuntzaren testuinguruan elebitasun-mailak neurtzeko gehien erabiltzen diren analisiak deskribatzen proposatzen duenarekin (Baker 2001).

Jardun-gunez gain, badira Fishman-en eta Zalbideren lanetan oinarrituta *Gela-argazkian* eta Arrueko azterketa-lanetan komun diren beste hainbat elementu. Funtsezkoenak aipatzera mugatuko gara hemen, besteak beste, aztertzen ditugun rol-harremanak edota errealitate linguistikoa aztertzean hitz egiteari lehentasuna emanaz egiten dugun hautua.

Gizarte batean —edo gure kasuan, ikasle multzo zabal baten baitan— hizkuntza aldetik *nagusitasun-moldaerak* nolakoak diren aztertzeo garaian, Fishman-en planteamenduen bidetik, hiru parametro nagusi kontuan hartzea komeni da: batetik, erabilera hori zein *jardun-gunetan* edo zein esparrutan ematen den; bestetik, erabilera horiek noren artean gertatzen diren eta zein diren erabilera horietan *rol-harremanak*, eta hirugarrenik, zein diren erabilera horien *aldakuntza-iturri* posibleak. Azken parametro horretan, hiru aldagai bereizi izan ditu Fishman-ek bere teorizazio-lanetan: erabilera horren *agerbidea* (hitz egitea, irakurtzea edo idaztea), *zabalera* (barne-hizkera den, mezua jasotzea edo mezua igortzea) eta *situazioa* (formala den, informala edo intimoa).

Hizkuntza-gertaeraren azterketan, *agerbideari* dagokionez, Arrue Proiektuan azterketaren erdigunean *hitz egitea* jarri izan dugu: nola hitz egiten duten ikasleek eskola-giroko beren eguneroko jardunean. Askoz maila apalagoan eta zeharka baino ez dira aztertu izan beste bi *agerbideak*, *irakurtzea* eta *idaztea*, alegia.

Bestalde, hizkuntza-gertaeraren *situazioari* dagokionean, bi situazio diferentetan gertatzen den eskola-giroko erabilera aztertu dugu nagusiki:

situazio *formalean* gertatzen dena batetik, eta situazio *informalekoa* bestetik. Situazio *formalean* gertatzen diren erabilerak gela barruan gertatzen dira gure kasuan, oro har. Situazio *informalekoak*, berriz, jolaslekuan edo gelatik kanpora gertatzen direnak ditugu. Hautu honekin, azterketatik kanpora geratzen dira, ikasleen situazio *intimoetan* kokatzen diren hizkuntza-gertaerak (ikasleen barne-pentsamenduak, adibidez).

Atal honekin bukatzeko, azkenik, *rol-harremanei* erreparatuko diegu. Ikuspegi soziolinguistiko batetik, funtsezkoa da hizkuntza-erabileraren azterketan jarduera hori noren artean gertatzen den kontuan hartzea. Aztergai dugun testuinguruan, solaskide horietako bakoitzak zer-nolako rola betetzen duen jakitea. Diogun, labur bilduz, Arrue Proiektuan bi rol-harremanak jarri ditugula azterketaren erdigunean: ikaskideen artekoa batetik (ikasle-ikasle jarduera) eta ikasleen eta euren irakasleen artekoa bestetik. Modu horretan, bigarren maila batean edo gure azterketatik kanpora utzi izan dugu eskolako testuinguruan gertatzen den beste hainbat harreman. Hautu honetan ere, funtsean, bat datoz Arrue proiektuan eginduguna *Gela-argazkiaren* planteamenduan eginikoarekin.

“HIZKUNTZA-GERTAERA”REN DIMENTSIOAK

I

Hizkuntza-erabilera aztertzean beraz, *Hizkuntza biziaren euskarriak* izeneko eredu teorikoan hiru maila dezberdinetatik —bat indibiduala eta beste bi sozialak— erreparatzen diogu esku artean dugun aztergaiari. Hizkuntza-erabilera, bestalde, hertsiki loturik dago hizkuntzari dagozkion beste hainbat asperturekin. Aztergaiaren erdigune hizkuntza-erabilera hartzea da Arrue Proiektuaren bereizgarrietako bat, baina horrek ez du esan nahi hizkuntza-jarrerak, hizkuntza eskuratzeko eta hartaz jabetzeko bideak edo hizkuntzaren inguruko beste hamaika elementuk erabilera horretan izan dezakeen eragina alde batera uzten denik.

Hizkuntzarekin loturiko elementuak modu egokian integratzen dituzten eredu teorikoei dagokionez, ikuspegi integratzaile egokia eskaintzen du gure ustez Bartzelonako Unibertsitateko (UB) zenbait ikerlarik hezkuntza arloko soziolinguistikaren ikerketan (*Sociolingüística Educativa*) baliatzen duten ereduak: *hizkuntzaren piramidea* esaten diote eredu horri (*Piràmide de la llengua*). Hizkuntza-gertaeraren lau dimentsio hartzen ditu eredu horrek kontuan (Vila 2012: 15). Honako lau hauek, hain zuzen:

1. Hizkuntza-egitura: bere barne-osaera (hizkuntzaren sistema)
2. Hizkuntza-erabilerak edo praktika linguistikoak

Hizkuntza-gertaeraren situazioari dagokionean, bi situazio diferentetan gertatzen den eskola-giroko erabilera aztertu dugu nagusiki: situazio formalean gertatzen dena batetik, eta situazio informalekoa bestetik.

**Arrue
Proiektuan bi
rol-harremanok
jarri ditugula
azterketaren
erdigunean:
ikaskideen
artekoa batetik
(ikasle-ikasle
jarduera) eta
ikasleen eta
euren irakasleen
artekoa bestetik.**

3. Hizkuntzei, hiztunei edota hizkuntza-erabilerei buruzko sinesmenak, irudikapenak eta /edo hizkuntza-ideologiak
4. Hizkuntza-ezagutzak eta ezagutza horien jabekuntzarako bideak

Piramidearen lau erpinetan kokatzen dira lau dimentsio horiek *Hizkuntzaren piramidearen* eredu honetan. Hizkuntza-gertaera bere osotasunean irudikatzen du, horrela, piramideak berak. Piramidea posizio desberdinetan jartzen dugularik ere, piramidearen goiko erpinean jartzen dugun dimentsioa lau horietako edozein delarik ere, piramidearen oinarrian geratzen dira beste hiru dimentsioak. Demagun, esate baterako, hizkuntzaren inguruko sinesmenak (3) ditugula aztergai eta dimentsio hori kokatzen dugula, beraz, piramidearen goialdean. Kasu horretan beste hiru dimentsioek osatuko lukete oinarria: hizkuntzaren sistemak edo barne-osaerak (1), hizkuntza-erabilerek (2) eta hizkuntza-ezagutzek edo jabekuntzak (4). Gure ikerketaren gai nagusia edozein delarik ere, interesgarri eta beharrezko deritzogu gainerako dimentsioez eta euren arteko harremanaz kontziente izateari, hala eskatzen baitu gure ustez hizkuntza-gertaeraren ulermen orokorrak. F. Xavier Vila ikerlariak horrela adierazten du gainerako elementuak ere kontuan hartzearen behar hori:

“per molt que hom tingui la pretensió, ben legítima, d'altra banda, de centrar la recerca en un aspecte concret del fet lingüístic —ja sigui el sistema, els usos, les representacions o l'adquisició— la comprensió global del fenomen estudiat requerirà, a la curta o a la llarga, que tingui presents els altres elements de l'equació plantejada” (Vila i Moreno 2012: 15)⁸

Arrue Proiektuaren kasuan lau dimentsio horietatik bigarrena kokatzen dugu ikerketaren erdigunean: (eskola-giroko) hizkuntza-erabilerak edo praktika linguistikoak (2). Gainerako hiru dimentsioei dagokienean, lehenengoa (hizkuntzaren sistema, bere barne-osaera edo corpus-a) azterketatik kanpora utzi izan dugu gehienbat: ikasleek darabiltzaten hizkuntzen ezaugarri linguistikoak ez ditugu, oro har, aztertu. Aldiz beste bi dimentsioak, hizkuntzari buruzko irudikapen-sinesmenena (3) eta hizkuntza-ezagutza (4) kontuan izan ditugu egindako analisisetan. Esate baterako, ikasleen hizkuntzekiko *gogo-lehentasuna* berariaz neurtu izan dugu (ikasleek euskara, gaztelania eta ingelesa zein neurritan duten *gustuko* galdetuta, adibidez), edo ikasleen *hizkuntza-irudikapenak* (egoera jakinei *zein hizkuntza doakien hobeto* galdetuz). Gaitasunari eta hizkuntza-jabekuntzari dagokienez ere, aldagai aske modura txertatu izan ditugu ikasleen gaitasunak hizkuntza-erabilerei buruzko analisisetan,

ikasleen ulermena eta idatzizko produkzioa neurtzen duten proben birtartez, edota ikasleei berariaz galdetuz zein hizkuntzatan errazago hitz egiten duten.

2011KO IKERKETAREN ONDORIOETATIK AURRERA BEGIRA

I

Artikuluaren sarreran aipatzen den moduan, 2011. urtean Arrue Proiektuaren baitan EAEko ikastetxeetan eginiko ikerketaren zenbait oinarriren berri eman da. Lan horren xehetasunak ezagutu nahi dituenak eskura ditu ikerketaren txostenean: *Arrue Proiektua. Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. LMH4ko eta DBH2ko ikasleak (EAE). Emaiza nagusiak* (Soziolinguistika Klusterra 2012a). Aipatu txostenean, 2011. urtean eginiko azterketaren ondorioak hamabost puntutan laburtu genituen. Ondorio nagusi haien osagarri diren zenbait ideia eta datu jorratuko dugu atal honetan.

Testu honetan zehar aipatu dugunez, epe ertaineko lan-ildo gisa moldatuta dago Arrue Proiektua, eta horrela ari gara urterik urte hezuramitzen. 2011. urtean eginiko azterketak ere, bide horretatik, izan du dagoeneko bere garapena; hemendik aurrera ere izango du. Ikerketa horretan oinarritutako *Jardunaldia* egin genuen alde batetik, 2013ko urtarrilean (Soziolinguistika Klusterra 2013). Jardunaldi hura hizkuntza-erabilerarekin era batera edo bestera loturik dauden gaiak aztergai dituzten ikerlari, irakasle eta aditu ugariaren bilkura izan zen. Bide horretatik, puntu honetara ekarri nahi genituzke aditu horietako batzuk adierazitako zenbait ideia, gogora ekarriz ideia horiek eta beste asko zehatzago eta zabalago ezagutzeko aukera emango duen lana argitaratzeko bidean dela: *Ikasleak hitzun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak* (Soziolinguistika Klusterra 2014, argitaratze bidean). Lan zabal horrek 32 ikerlari eta adituk 2011ko Arrue ikerketaren emaitzak abiapuntu harturik ondutako 23 artikulu jasotzen ditu.

Ez gara beraz atal honetan xehetasunez arituko, 2011ko azterketaren gainean ateratako ondorioez. Bertan nabarmendu genituen hamabost puntuak nolabait laburtu ditzakegu hemen, elkarrekin lotuta dauden hiru ideia nagusiren inguruan.

Alde batetik, konbergentziaren ideia: hizkuntza bat, beste bat edo biak erabiltzeko orduan gizarte-bizitzan indarrean diren arauetikiko konbergentzia ageri da, eskola-esparruan, ikasleek adinean gora egin ahala. 2011ko datuek argi erakusten dutenez, 13-14 urteko (DBH2ko) ikasleen euskarazko jarduna 9-10 urtekoena (LMH4koena) baino

Hizkuntza bat, beste bat edo biak erabiltzeko orduan gizarte-bizitzan indarrean diren arauetikiko konbergentzia ageri da, eskola-esparruan, ikasleek adinean gora egin ahala.

EAEko eskola-giroko hizkuntza-erabilerari dagokionean, urtetan eginiko lanaren ondorioz, “euskaldun” eta “erdaldun” gisa bereiz zitezkeen bi taldetatik *continuum* aberatsago eta konplexuago batera pasatzen ari gara gero eta gehiago. *Continuum* horretan euskaldun dira ikasle gehienak.

apalagoa da, batez ere jolaslekuan⁹. Aldagaien arteko loturak aztertuz eginiko analisisiek zera iradokitzen dute: ikasleak beren ingurune hurbileko errealitatera eta indarrean diren arauetara egokitzeko eginak dira aldaketa horiek.

Bigarren ideia, eskolaren ahalmen mugatuarena da. Ikasleek etxetik, kaletik eta beren lagunartetik dakarten erdarazko hizkuntza-erabilera birmoldatzeko eragimena (erdal erabilera euskal jardunera makurtzekoa bereziki) aski mugatua da. Ahalmen-autonomia erlatiboa du horretan eskolak. Analisi askotan nabarmendu da ondoko hau: eskolaz kanpoko jarduera antolatuetan ikasleek duten hizkuntza-erabilera da, aztertutako aldagai guztien artean, beren eskolako erabilera orokorrarekin loturarik estuena duena (ikasleen irakastereduekin batera): bere lehen hizkuntzaren edo gaitasunaren gainetik dago hori. Ikasleen ingurumen hurbileko errealitate linguistikoek eskola-girokoan duten eraginaren zabalera eta sakona azaleratzen digu horrek.

Hirugarren ideia, eta azkena, ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-ezau-garrien eta -baldintzen eraginarena da. Konkretuki, irakasleek beren arteko harremanetan euskaraz gehiago edo gutxiago egiteak badu bere pisua: aldagai hori argi nabarmendu da aldagai anitzeko analisisetan, ikasleen erabilera azaltzeko garaian. Horrek ere zerbait erakusten digu, gure ustez: ikastetxe bakoitzak bere jardunaren bitartez sortzen dituen baldintzek badute indarrik, hein batean noski, gizarte-bizitzaren zenbait baldintzapen orokor gaintzeko.

2011ko ikerketatik ateratako datuak oinarri hartuta abian jarri dugun dinamikari esker, datuok eta ikerketaren planteamendua bera hainbat ikuspegitatik begiztatzeko, kritikatzeko eta osatzeko hamaika ideia eta iritzi jaso dugu ikerlari, lankide eta aditu askotxoren aldetik. Horietako batzuk labur azaltzen ahaleginduko gara artikulua azken zati honetan.

- *Continuum*-a. Jone Miren Hernandez ikerlariak nabarmendutako ideia da hori. 2011ko datuek —eta beste hainbatek— zera adierazten digute: EAEko eskola-giroko hizkuntza-erabilerari dagokionean, urtetan eginiko lanaren ondorioz, “euskaldun” eta “erdaldun” gisa bereiz zitezkeen bi taldetatik *continuum* aberatsago eta konplexuago batera pasatzen ari gara gero eta gehiago. *Continuum* horretan euskaldun dira ikasle gehienak: “neurri batean” eta “modu batera” euskaldun.
- Eskolak, neurri batean, gazte-gaztetxoek euskalduntzea dakar EAEn. Josu Amezaga soziologoak nabarmendutako ideietako bat da hau. Eskolak zenbateraino eta nola lortzen duen belaunaldi

berriak euskalduntzea maiz sortzen den galdera da. Ikerketa honen datuek argi erakusten dute lorpen hori eskuratu eskuratzen dela, baina horrekin batera bere mugak ere erakusten dizkigu.

- Eskola, kontrapisu nagusi. EAEko ikasle guztiei —bereziki etxean horretarako aukera ez dutenei— euskal hizkuntzaz jabetzeko eskola-sistema egiten ari den urteetako saioaren emaitzak ebaluatzen direnean, hizkuntza-erabilerari dagozkionak analizatzen direnean bereziki, maiz aipatzen da eskolak gizartean duen isla mugatua. F. Xavier Vila irakaslesak, hori dela-eta, zera nabarmendu ohi du: eskolaren lanak, muga-faktoreaz aparte, etengabeko kontrapisu eragina ere baduela. Hizkuntza-ukipeneko gure egoera honetan, gaztelaniaren aldeko gizarte-isuria hain betea izanik, eskola bidez egiten den lana da desoreka nabarmen hori konpentsatzen laguntzen duen kontrapisu nagusia.

- EAEko ikasleen hizkuntza-erabilerako datu orokorrak ezagututa, ezaugarri jakinak dituzten ikasleen errealitate zehatzak ikertzea merezi duela azpimarratu du ikerlari eta aditu askok. Horien artean daude, esate baterako, Jasone Cenoz ikerlaria eta bere lankideak. Honako ezaugarriok dituzten ikasleen errealitatea zehatzago ezagutzea komeni da, beraien ustez: lehen hizkuntza euskara, D irakasteredua eta ezagueraz %30 eta %60 artean euskaldun den herriko ikastetxea. Ezaugarri horiek dituzten LMH4ko ikasleen datuek 2011n erakutsi dute adin horretan (9-10 urte) badituztela gutxieneko baldintza orokorrak jolaslekuan ikaskideekin euskaraz aritzeko. Aldiz, ezaugarri horiek dituzten DBH2ko ikasleen erabilera-datuetan alde nabarmenak daude. Horra hor, beraz, aurrera begira interes berezikoa izango den ikasle-multzoetako bat.

- Nerabezaroan behera eta ondoren gora? Ikasleen —oro har gazteen—inguruan aipatutako Jardunaldiaren (Soziolinguistika Klusterra 2013) mahai-inguruan iradoki zen hipotesia dugu hau. Ikasle eta gazte askoren hizkuntza-erabileraren bilakaera ezagutu duten hezkuntzako adituek zera iradokitzen dute: motiborik bada pentsatzeko, 13-14 urteko gazte askok euren artean duen euskarazko erabilera-maila horrek gora egingo duela adinean gora egin ahala. Beren nortasuna eraikitzeko eta gizartera egokitzeko bidean gazteen jarduerak beren hizkuntza-erabileran duen isla legoke hipotesi honen atzean.

- Begiratu kualitatiboaren eta tokian tokikoaren beharra. Norabide horretan doa hainbat ikerlarik eginiko ekarpena. Eskola-giroko ikasleen hizkuntza-erabileraren fenomenoak ulertzeko eta ezagutzeko bidean urrats garrantzitsua da EAEko bi ikasmaitako ikasle

guztien gelako eta jolaslekuko erabilera kuantifikatu izana. Datu — hotz edo bero—horien atzean, ordea, tokian tokiko baldintzetan modu batera edo bestera garatzen diren dinamika aberatsak ezkutatzen dira. Ikasgela, ikastetxe eta jolasleku jakinen errealitate konplexuak eta irakasle, ikasle zein ikasle-talde jakinen prozesuak hurbilagotik ezagutzeko gonbite gisa har ditzakegu 2011ko datuok, alde horretatik.

Aipaturiko ideien eta beste batzuen bidetik, Arrue Proiektuaren baitan urrats berriak emateko norabidean da eskola-giroko ikasleen hizkuntza-erabileraren gaineko ikerketa eta hausnarketa. Bereziki interesgarri gertatzen zaizkigu, bide horretan barrena, eskola-giroko erabilerak beste errealitate eta gizarte batzuetan aztergai dituzten proiektuen berri izatea eta haiekiko lankidetzabideak zabaltzea. Bartzelonako Unibertsitateko zenbait ikerlarik, F. Xavier Vila gidari dela, urteak daramatza hezkuntza arloko soziolinguistika ikertzen¹⁰. Ikerketa-ildo bat egituratu dute dagoeneko, RESOL izeneko proiektuaren inguruan (RESOL [2007-2009], RESOLSEC [2010-2012] eta RESOL3 [2013-2015] proiektuak). Arrue Proiektutik landu dira dagoeneko azken urteotan ikerketa-ildo horrekiko elkar-ezagutzarako eta lankidetzarako lehen urratsak.

Amaitzeko aipatu, Arrue Proiektuaren ikerlerro honek eskaintzen duen informazioaren zabaltasunari eta ugaritasunari erreparatuz, ikertzen jarraitzeko aukera ugari zabaltzen dela. Horietako batzuk abiatuta daude dagoeneko, eta beste batzuk epe laburrean landu litezke. Horien adibide batzuk aipatuko ditugu jarraian:

2011koa bezain azterketa zabalak eta orokorrak bide berriak zabaltzen ditu eskola-giroko ikasleen hizkuntza-erabilera ikertzeko. Esate baterako, aipatutako lanean eginiko analisisietatik abiatuta, azterketa arakatzailak egin izan ditugu ikasleak irakastereduka berezita, eta berariazko arreta jarritz euskararen eskola bidezko jabekuntzarako aukera hoberenak dituzten D ereduko ikasleengan. Norabide horretan landu genituen bi ikasmailerako *azterketa arakatzailak* txostenak (Soziolinguistika Klusterra 2012b eta 2012c).

Interes horretan bat etorri zen, esate baterako, gorago aipaturiko 2013ko Jardunaldian partaide izan genuen Jeroen Darquennes irakaslea, Belgikako Namur unibertsitatekoa. Berarekin lankidetzan ondua dugu argitaratze-bidean den artikulu bat, D ereduko ikasleen erabileraren nondik norakoak aztergai dituen (Martínez de Luna et al. 2014, argitaratze bidean), eta neurri batean 2012an zabaldu genuen txostenean eginiko lanari jarraipena ematen diona.

Halako lanak euskal testuinguruan egiten, haien berri ematen eta diziplina diferenteetatik hizkuntza-erabileraren azterketari beren ekarpena egiten dioten adituekin batera lan berriak diseinatzen jarraitzea da lerro hauek sinatzen ditugunon asmoa. Eta horrekin batera, gorago aipatu dugunez, baita hizkuntza-ukipenezko egoeran dauden beste errealtateetan egiten diren azterketen ezagutza zabaltzea eta gurearekiko alderaketa aintzinatzea. Eta hori guztia zertarako? Urtez urte eskola-giroko hizkuntza-erabileraren ezagutzan tresneria zientifikoaren bidetik pixkanaka aurreratzen joateko, eta gaiaren inguruan erabakiak hartu behar dituztenei, zein eskola-giroko mila ekimen sortu eta garatzen dituztenei, ezagutza zehatza, metodikoa eta lagungarria eskaintzeko. ●

OHARRAK

1. Xehetasun gehiagorako, ikus 2011ko Arrue Proiektuaren txostena (Soziolinguistika Klusterra 2012a: 4).
2. Eredu teoriko honi buruzko azalpenak eta xehetasunak kontsulta litezke, besteak beste, ondorengo hiru lanetan: Martínez de Luna, I. (2001), eta berrikiago argitaraturiko bi hauetan ere: Martínez de Luna, I., Suberbiola, P. (2008) eta Martínez de Luna, I., Suberbiola, P., Basurto, A. (2009).
3. Batez ere Ulibarri Programan biltzen diren ikastetxeetan. Informazio gehiago: <http://www.ulibbarri.info/>
4. Ez elementu komun ugari bakarrik, 2008. urtean Arrue Proiektuaren baitan *Gela-argazkia* galdetegia erabiliz datu-jasoketa zabal bat egin zen EAEko hainbat ikastetxetan, lau ikasmaitlan: LMH2, LMH6, DBH1 eta DBH4, guztira 10.233 ikasleren datuak jasoz (2.000 ikasletik gora ikasmaitla bakoitzean).
5. Gorago aipaturiko 2004ko txostenaz gain, gaiari buruzko azalpen zabala eta erreferentzia ugari eskaintzen dira Zalbidek 2009an Udaltop Jardunaldietarako prestatu zuen txostenean (Zalbide: 2009).
6. Soziolinguistikaren euskal eremuan Zalbidek sozializatutako terminoa dugu, "erabile-ra-esparru" eta "jardun-esparru" gisa ere erabili dena. Arrue proiektuan ere *jardun-gune* erabili dugu hizkuntza-erabilera gertatzen den gizarte-eremu edo esparru ezberdinak izendatu eta bereizteko.
7. *Gela-argazkia* 6 *jardun-gune* bereizten dira: *familia, auzoa, eskola, komunikabideak, kirola eta eliza*.
8. Zenbaki honetan bertan eskaintzen da artikulu horren euskarazko ordaina.
9. Kontuan hartu behar da, beti ere, 2011. urtean eginikoa ez dela ikerketa longitudinala, eta urte berean aztertutako bi ikasmaitetako ikasleek unibertso desberdinak osatzen dituztela. Aurrerantzean baieztatu beharreko joera moduan hartu behar dira beraz, ezinbestean, 2011ko datuetan neurtutako ikasmaiten arteko aldeak.
10. Ikus, adibide modura, 2009an F.X. Vilak M. Galindorekin batera eginiko azterketa (Galindo et al. 2009), edota Generalitat de Catalunya, aditu batzorde baten gidaritzarekin 2006an DBH4ko ikasleen inguruan eginikoa (Generalitat de Catalunya 2008).

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Baker, Colin (2001) *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism. 3rd Edition*. Clevedon: Multilingual Matters LTD.

Halako lanak euskal testuinguruan egiten, haien berri ematen eta diziplina diferenteetatik hizkuntza-erabileraren azterketari beren ekarpena egiten dioten adituekin batera lan berriak diseinatzen jarraitzea da lerro hauek sinatzen ditugunon asmoa.

- Galindo, Mireia; Vila i Moreno, F. Xavier (2009) Els factors explicatius dels usos lingüístics informals entre l'alumnat català: llengua inicial, xarxes socials, competència i llengua vehicular d'ensenyament *Noves SL*, Hibern 2009. Sarean eskura: http://www6.gencat.cat/lleng-cat/noves/hm09hivern/galindo_vila1_9.htm [azken kontsulta, 2014-01-08]
- Generalitat de Catalunya, Departament d'Educació (2008) *Estudi sociodemogràfic i lingüístic de l'alumnat de 4t d'ESO de Catalunya. Avaluació de l'educació secundària obligatoria 2006*. Sarean eskura: <http://www20.gencat.cat/docs/Educacio/Home/Consell%20superior%20d%27avalua/Pdf%20i%20altres/Static%20file/Informes11.pdf> [azken kontsulta, 2014-01-03]
- Fishman, Joshua A. (1966) *Language Loyalty in The United States*. (1978ko berrargitarapena) New York: Arno Press.
- Hainbat egile (2000) *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Martínez de Luna argitaratzailea.
- Martínez de Luna, Iñaki; Zalbide, Mikel; Darquennes, Jeroen; Suberbiola, Pablo (2014) [argitaratze bidean] The use of Basque in model D schools in the Basque Autonomous Community, in *European Journal of Applied Linguistics*. De Gruyter.
- Martínez de Luna, Iñaki; Suberbiola, Pablo; Basurto, Asier (2009) *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Martínez de Luna, Iñaki; Suberbiola, Pablo (2008) Measuring Student Language Use in the School Context. *Language, Culture and Curriculum* 21. 59-68 orr.
- Martínez de Luna, Iñaki (2001) Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 40 (47-66).
- Soziolinguistika Klusterra (2014) [argitaratze bidean] *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Soziolinguistika Klusterra (2013) VI. *Euskal Soziolinguistika Jardunaldia (2013-01-31, Donostia)*. *Ikasleen jarduna: emaitzen hausnarrean. Arrue ikerketa*. <http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia/multimedia> [azken kontsulta 2014-01-08]
- Soziolinguistika Klusterra (2012a) *Arrue Proiektua. Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. LMH4ko eta DBH2ko ikasleak (EAE)*. *Emaitza nagusiak*. Sarean eskura: http://www.soziolinguistika.org/files/ED2011_Emaitza_nagusien_txostena.pdf [azken kontsulta, 2014-01-03]
- Soziolinguistika Klusterra (2012b) *LMH4: Hizkuntza-ereduen araberako azterketa arakatzailerak*. Argitaratu gabeko txostena.

Soziolinguistika Klusterra (2012c) *DBH2: Hizkuntza-ereduen araberako azterketa arakatzailak*. Argitaratu gabeko txostena.

Vila i Moreno, F. Xavier (2012) *Algunes bases per a la recerca sociolingüística en sentit ampli*, in Vila i Moreno, F. Xavier (Ed.) *Posar-hi la base. Usos i aprenentatges lingüístics en el domini català*. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans. 11-24 orr.

Zalbide, Mikel (2009) *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan*. Lasarte-Oriako Udaltop jardunaldian emandako hitzaldia. PDF txostena: <http://www.udaltop.com/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/aurrez-aurreko-jardunaren-lekua-hinbe-saioetan-2.pdf> [azken kontsulta, 2014-01-08]

Zalbide, Mikel (2004) *Hizkuntza-normalkuntzaren oinarritzko kontzeptuak, perspektiba sozioedukatiboan*. Eusko Jaurlaritza, argitaratu gabeko txostena.